

14/22

irizpena

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari itun sozialaren eta hitzarmenen araubidea arautzen dituen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022eko urriaren 26a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 14/22

I.- SARRERA

2022ko irailaren 9an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren idazkia sartu zen, eta txostena eskatzen zuen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren eta hitzarmenen araubidea arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dekretuaren xedea da arautzea, batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61.1 eta 69. artikuluek aurrez ikusten dituzten itunaren eta hitzarmenen araubidea, hurrenez hurren, eta, bestetik, itunduta dauden zentro pribatuen jarduketabaldintzak. Hala, itun sozialaren araubidearen oinarritzko alderdiak eta, bereziki, eskuratzeko eskakizunak, gehieneko iraupena eta itunak azkentzeko arrazoiak ezartzen dira, aldean betebeharez gain.

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzaie, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraiki. Gizarte Garapenerako Batzordea 2022ko irailaren 30ean eta urriaren 20an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen Batzordearen Osoko Bilkurak urriaren 26an azter zezan, eta aho batez onartu da.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuaren testuak zioen azalpena, 20 artikulua, 2 xedapen iragankor, gehigarri bat eta azken bat ditu.

Azaltzen duenaren arabera, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (aurrerantzean, GZL) agintzen duenarekin bat etorritik, dekretuaren xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak ekimen pribatuarekin ituntzeko araubide orokorra eta erkidea arautzea, betiere aintzat hartuta GZLaren 61.1 eta 69. artikuluek xedatutakoa.

GZLaren 60.1 artikulua ezarritakoaren arabera, itunaren araubidearen formula administrazio publikoak eskura du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak antolatzeko. Formula horri erantzen zaizkio zuzeneko kudeaketa, administrazio publikoen kontratazioari buruzko araudiaren esparruan zeharkako kudeaketa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin hitzarmenak.

Zehazki, legeak xedatutakoaren ildotik, katalogoko zerbitzuak emate aldera ituna ekimen pribatuko edozein erakunderekin lankidetzara arautzeko ohiko bidea da, forma juridikoa gorabehera. Horretarako, bere titulartasuneko zentroak izan behar dituzte, edo, bestela, erabilera eta luperketaren eskubide errealak, GZLak eta dekretu honek zehazten dituzten baldintzetan. Horrenbestez, itunaren araubidea bideratuko da, alde batetik, zentroetan plazak gorde eta okupatzera, eta, beste alde batetik, zentro horietan kudeaketa osoa ematera, erabiltzaile guztiei edo zati bati zerbitzuak eskaintzeaz gain. Kontuen Auzitegiaren 2010eko azaroaren 30eko 878 Irizpenari erreparatuta, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluak lehenengoz sistematizatzen du hitzarmenatarako oinarritzko araubide osoa.

Halaber, aipatzen da itunaren araubide horrekin lotutako tresna ituna dela (dekretu honek hala deritza) eta eremua kontuan hartuta itun soziala. Dena den, dekretu honek araubidea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bano ez du arautzen, ez, ordea, gizarte esku-hartzearen eremu guztian.

Itun sozialak ez du kontratuaren izaerarik, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak, bai eta erantzukizun publikoko gizarte esku-hartzearen eremuari dagozkion zerbitzu guztiak ere antolatzen dira.

Bestalde, GZLaren 69. artikulua xedatutakoaren arabera, hitzarmenak tresna egokitzat jotzen dira irabazi-asmorik ez duen gizarte ekimenarekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak ematean lankidetzan jarduteko, baldin eta itunaren araubidea aplikatzea gomendatzen ez bada.

Gainerako zioen azalpena EBren araudiarekin eta Espainiako ordenamendu juridikora egindako transposizioarekin bat etorriz, bi tresnak hautatzearen gaineko justifikazio juridikoari buruzkoa da, kontuan hartuta halako zerbitzuak antolatzen diren formula zehatza EAEk hautatu behar duela, kudeaketa bere gain onartu baitu.

Xedapen-multzoa

I. kapituluak dekretuak xedea, aplikazioko eremua eta eremu subjektiboa mugatzen ditu. Gainera, zenbait definizio aipagarri ematen ditu (itun soziala, kudeaketa osoa, itunpeko zerbitzuak, zentroa, itunpeko zentroa, itunpeko plaza, plaza okupatua, gordetako plaza eta prestazio-eremua) eta itunpeko ekintzaren nahiz ituntze-prozeduraren informazio-printzipioak azaldu ere bai, itun sozialaren araubideak dituen helburuekin batera.

Itunpeko ekintzak honako printzipio hauek beteko ditu: a) erantzukizun publikoa; b) berdintasuna eta ekitatea; c) aurrekontuaren oreka, egonkortasuna eta eraginkortasuna; d) arreta pertsonalizatua, etengabea, osoa, hurbila, kalitatezkoa, prebentziozkoa eta parte-hartzailea; eta e) erabiltzaileen errotzea, zerbitzu baterako onetsitako eskubidearekin.

Ituntze-prozedurak, berriz, honako hauei erreparatuko die: a) erakunde eskatzaileen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza eta b) publikotasuna nahiz gardentasuna.

II. kapituluak itun sozialaren araubidean sartzeko eskakizunak arautzen ditu. Eskakizun horiek GZLak aurrez ikusitakoa garatzeko eta aplikatzeko egin dira. Xede horrez, erkidegoaren ikuspegiarekin batera, gizarte-zerbitzuetarako kalitatezko Europako borondatezko esparrua aintzat hartzen du. Horrez gain, itunak planifikatu eta finantzatzeari buruzko zenbait xedapen ezartzen ditu.

III. kapituluak, hasieratik amaitu arte, ituntze-prozeduraren oinarriko zenbait alderdi definitzen dira, bai eta itunak sinatzearen eta formalizatzearen gainekoak ere.

IV. kapituluak ekintza itunduko akordioaren araubide juridikoa xedatzen du eta, zehazki, aldean betebeharrak zehazten ditu, batetik, itunpeko erakundearenak eta, bestetik, ituna egiten duen administrazio arduradunarenak.

V. kapituluak itunei dagokienez honako hauek arautzen dira: iraupena, berritzea, aldatzea, suntsiaraztea eta azkentzea. Gainera, errotze-printzipioarekin lotuta, erabiltzaileei arreta ematen jarraitzeko berezko zenbait alderdi daude.

VI. kapituluak hitzarmenei aplikatu behar zaizkien itunaren araubidearen ezaugarriak eta eskakizunei buruzkoa da, eta, besteak beste, katalogoko zerbitzuak emateko euskal administrazio publikoek irabazi-asmorik gabeko erakundeekin hitzarmenak formaliza ditzaketen ustekoak ditu. Hala, zehazten dira noiz gertatzen diren erakundearen jardueraren berezitasuna eta zerbitzuaren berezitasun

berritzailea eta esperimentalak edo premiazkoa. Kasu bakoitzean hitzarmenen iraupena definitzen da.

Azkenik, xedapen iragankorrek xedatzen dituzte hitzarmenen eta kontratuen indarraldia eta katalogoko zerbitzuak ematen ari diren erakundeekin itunak, bai eta zerbitzuen araubide iragankorra ere, eskakizun materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak arautzeke daudenean. Xedapen gehigarriaren arabera, dekretu honek xedatutako esparru orokorra errespetatuta, ekintza itunduaren araubidea garatzeko administrazio publikoen ahalmena definitzen da. Eta, amaitzeko, azken xedapenak dekretua indarrean jartzea aurrez ikusten du.

Aurkibidea

I. KAPITULUA. HELBURUAK, DEFINIZIOA, APLIKAZIOKO EREMUA ETA PRINTZPIOAK

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Aplikazioko eremua
3. artikulua. Eremu subjektiboa
4. artikulua. Definizioak
5. artikulua. Itunaren inspirazio-printzipioak eta ituntze-prozedura
6. artikulua. Helburuak

II. KAPITULUA. ITUNAREN ARAUBIDEAN SARTZEKO, HURA PLANIFIKATZEKO ETA FINANTZATZEKO ESKAKIZUNAK

7. artikulua. Itun sozialaren araubidean sartzeko eskakizunak eta ituntzeko ahalmena
8. artikulua. Itunaren araubidea planifikatu eta finantzatzea

III. KAPITULUA. ITUNTZE-PROZEDURA

9. artikulua. Prozedura hastea, deialdia eta eskaerak aurkeztea
10. artikulua. Prozedura izapidetzea
11. artikulua. Prozedura amaitzea
12. artikulua. Sinatzea eta formalizatzea

IV. KAPITULUA. ITUNEN ARAUBIDE JURIDIKOA

13. artikulua. Itunpeko erakundearen eskakizunak
14. artikulua. Itunpeko erakundearen eskakizunak

V. KAPITULUA. IRAUPENA, BERRITZEA, ALDATZEA ETA AZKENTZEA

15. artikulua. Itun sozialaren iraupena eta berritzea
16. artikulua. Itun sozialak aldatzea

17. artikulua. Itun sozialak azkendu edo suntsiaraztea

18. artikulua. Itun sozialak azkendu edo suntsiarazteko prozedura eta bien ondorioak

19. artikulua. Erabiltzaileei arreta ematen jarraitzea

IV. KAPITULUA. LANKIDETZA-ESPARRUKO HITZARMENAK ETA AKORDIOAK

20. artikulua. Lankidetzaz-esparruko hitzarmenatarako eta akordioetarako aplikazioko araubidea

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Hitzarmenen eta kontratuen indarraldia

Bigarrena. Zerbitzuen araubide iragankorra, eskakizun materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak arautzeke badaude

XEDAPEN GEHIGARRIA. Administrazio publikoen itunpeko ekintzaren araubidea garatzea

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gure irizpena emateko dekretu-proiektua aurkeztu zaigu, eta helburu du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren **itunaren eta hitzarmenen araubidea** arautzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61.1 eta 69. artikuluetan aurrez ikusitakoaren arabera.

Dekretuak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatzen du. Esan behar da Batzordeak lege horri buruzko 3/08 Irizpena eman zuela 2008ko martxoaren 6an: *“Ekimen pribatua gizarte zerbitzuen kudeaketan parte hartzeko aukeraren gainean EGABren barruan sentsibilitate desberdinak izatearen kalterik gabe, aurreproiektuak zehazten duen diseinuak ziurgabetasuna sortzen du, ezin baita antzeman zein izango den egiazko irismena”*.

Gure ustez, kontsultatzen zaigun testuak iragartzen zen ziurgabetasunaren egoera areagotzen du.

Ia hiru bosturteko igaro dira, baina legeak aurrez ikusten zuen araugintzako garapen gehiena egin gabe dago. Horrela, gizarte zerbitzuen eredua nahikoa garatu ez denez, zerbitzu horiek, neurri handian, sistemaren eragile partaide bakoitzak hartu dituen erabakien arabera funtzionatu dute. Ildo horretatik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bateratu eta ardazteko mekanismoak urriak eta ahulak izan dira.

Ezin daiteke ulertu gure gizarte-zerbitzuak garatzeko dekretu-proiektu hau zer ereduren irudi orokorrean txertatu den. Gure iritziz, falta izan dira eztabaida eta plangintza orokorra kostuei, finantzaketari, arreta-ereduari, kudeaketa-ereduari, gobernantzari eta bestelako gaiei dagokienez. Eztabaidaren bitartez adostasunera iristeko baldintzak ezarri beharko lirake, adostasun horiek ezinbestekoak baitira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatze aldera.

Gaia arauz garatzea beharrezkoa eta egokia da, baina EGABren irizpenerako testuak kezka sakona eta harridura sortzen dizkie sektoreko zenbait eragile garrantzitsuen ordezkari, edukiaren funtsezko alderdi nagusi baten inguruan, hain zuzen ere, gizarte-zerbitzuak ematean administrazio publikoei, hirugarren sektore sozialari eta merkataritza-hornitzaileei esleitzen zaizkien rolak. Zentzu horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ikuspuntutik, kezagarria da

herritarrentzat oinarrizko zerbitzuak emateko orduan, administrazioekin lankidetzan, halako zerbitzu gehienak ematen dituzten erakundeei modu garrantzitsuan nahastea erakunde horiek proposamenarekin lerrokatuta egon gabe.

IV.- ONDORIOA

Gizarte-zerbitzuak gure gizarterako funtsezko zerbitzuak dira, beraz, haiekiko erantzukizuna nahitaezkoa da. Bestalde, hazi eta garatu behar dira, bai eta hurrengo urteetan bereziki eraldatu ere. Bi horiek abiapuntutzat hartuta, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ahalegin bat egin dezan ukituta dauden eragile nagusiekin eredia argitu eta adostasun sozial eta politikora iristeko. Helburua da dekretu-proiektuak idazkera berria izatea gizarte-zerbitzuak eragile haiek nahikoa ezagutu eta onartzen duten garapen-ereduan kokatzeko.

Bilbon, 2022ko urriaren 26a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte